



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-01-17

VII. URTEA 1.605. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ITSASO LEUNDA KIROLARIA

## «Triatloia baztertzen ez dudan arren, bizikletarako prestatuko naiz»

**HERNIALDE** 2008an Euskal Herriko triatloi zirkuituko eta txirringularitzan Espainiako txapelduna izan zen

**AURTENGO DENBORALDIA** Ez du helburu zehatzik, baina, Euskal Herrian eta Espainian, maila ona eman nahi du s



R. CALVO

**PEIO IRIARTE** LAB-EKO MUNKSJÖKO ORDEZKARIA

### «Gure langabeziko dirua ez du behar enpresak»

**BERASTEGI** Munksjö lantegiko zuzendaritzak 163 langileetatik 156ri eragiten dien 8 hilabeteko enplegu erregulazio espedientea onartu du 7

## Ziklo berriaren atarian gaudela dio ezker abertzaleak

**POLITIKA** D3Mren aldeko sinadura bilketetan parte hartzera deitu dituzte herritarrek 4

**Bihar goizean izango da, Alde Zaharrean, Ero-Etxe krosa**

**TOLOSA** 9-14 urte bitarteko ehunka gaztetxok hartuko dute parte 4

**Kirolari onenaren saria eman diote Leire Olaberriari**

**IKAZTEGIETA** Olinpiar Jokoetan brontzea eskuratu zuelako eman diote 6



JATORRIZKO DEITURA

Tfn.: 943140383 e-mail: info@getariakobakolina.com



# GAILURRETIK GAILURRERA

**Mendia** » Eskualdeko mendi elkarrekin prest dute 2009rako egutegia; egun bateko irteerak, asteburuak, ikastaroak,... dituzte aukeran.

NOELIA LATABURU

**E**uskaldunak mendia maite omen du. Gurean behintzat halaxe da, mendiarekiko dagoen zaletasuna ezaguna baita. Zaletasun hori asetu aldera, eskualdeko mendi elkarrekin prest dituzte euren egutegiak, urte osorako aurreikusten dituzten ekitaldiekin. Tolosako Oargi eta Alpino Uzturre mendi elkarrekin, Villabonako Aizkardi mendi elkarrekin, Asteasuko Sagain mendi taldeak, Alegiako Mendi Asanbladak eta Ibarako Haitzetan Rajuk, Bai Euskal Herriari-rekin batera, ikastaroak, asteburu pasak, egun pasak,... antolatuta dituzte urtarrelean hasi eta abendura bitarte. Mendi elkarrekin helburuak mendizaletasuna zabaltea eta sustatzea eta inguru berriak ezagutzea da.

Egutegia osatzeko lana aurreko urtean hasten da, elkarrekin batzordeak bilerak eginaz zehazten ditu, aurrez bazkideekin hitz eginda. Bilera eta lanordu ugari daude guztiaren atzetik, beraz.

## Oargikoek ikastaro ugari antolatuta dituzte

Oargi mendi elkarrekin asteburu osorako irteera ugari antolatuta ditu bere egutegiaren baitan. Horretaz gain, urteko plangintza orokorrean sartu ez dituzten beste hainbat ikastaro ere egingo dituztela zehaztu dute. Besteak beste, brujula

eta mapen erabilpena, GPSaren funtzio nagusiak eta GPSarentzat baliagarriak diren ordenagailu eta interneten dauden mapa eta track edo bideen erabilpena jorratuko dituzte. Ikastaro hauek guztiak Karlos Garciak eskainiko ditu Oargi mendi elkarrekin bertan eta Tolosa inguruko mendi magalen batean. Arduradunek argitu bezala datak zehazteke dituzte.

## Alpino Uzturre, mende erdiaren hurrengoa

Urte berezia izan zen 2008a Alpino Uzturrentzat. Elkarrekin bere 50. urteurrena ospatu zuen eta ekitaldi bereziak egin zituzten urtean zehar. Aipatzekoa, besteak beste, bazkideek Gipuzkoako tontor guztiak goiz berean igo zituzten eguna.

Halaber, euren historia guztia biltzen duen liburua argitaratu zuten abenduan. Joxemi Saizar izan da egilea eta bertan elkarrekin nondik norakoak azaltzen dira. Liburuari mugimendua emateko, DVD bat ere kaleratu dute. Garai bateko eta egungo bazkideen esperientziak biltzen ditu azken honen.

Mendearen bigarren zatia ere gogotsu ekin nahi diote Tolosako-ek. Hauek, batik bat, egun baterako irteerak antolatuta dituzte. Beti bezala, irteerak irekiak direla jakina-

razi dute. Asteburu honetan, berri, fondoko eski ikastaroa antolatuta du gaurko eta biharko 1995-98an jaioetako haurrentzat. Irteera 07:15ean izango da eta itzulera, berri, bihar arratsaldean.

## Villabona-Aiztondon, esperientzia eta ilusioa

Esperientzia handiko elkarrekin Aizkardi. Urte asko daramatza martxan eta irteeraz gain, beste hainbat jarduerak ere antolatzen ditu. Urtero antolatzen duten martxa, esaterako, arrakastatsua izaten da eta eskualdeko nahiz kanpoko mendizaleek hartzen dute parte bertan. Iazkoa 40. aldian zen eta 1.000 lagunetik goraitzen ziren ibilaldian.

Bailara berean, ilusioz beteriko elkarrekin berri bat ere badago: Sagain. Mendiarekiko herrian zegoen zaletasuna ikusita sortu zen elkarrekin arte izandako ibilbidearekin pozik daudela aitortzen dute. Lehen urratsak pixkanaka eman dituzte eta egutegi osatua antolatuta dute 2009. urterako.

## Haitzetan Raju, Bai Euskal Herriarekin batera

Ibarren aldarrikapenerako aitzakia ere badira mendi irteerak. Izan ere, Ibarako Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi Taldeak Euskal Herrian zehar ikurrina aldarrikatuz ibiliko dira menditik mendira, *Euskal Herrian zehar, geurea ikurrina!* egitasmoari esker. Iaz egin zituzten lehenen irteerak eta 2009an jarraipena emango diote egitasmoari.

## » HELBIDEA ELEKTRONIKOAK

### ■ Oargi.

[www.oargi.org](http://www.oargi.org).

### ■ Sagain.

[www.sagain.org](http://www.sagain.org).

### ■ Alpino uzturre.

[www.alpinouzturre.com](http://www.alpinouzturre.com).

### ■ Aizkardi.

[www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com).

Nafarroa eta Gipuzkoa bisitatu zituzten iaz eta aurtan Lapurdi, Behe Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Xiberoaren txanda izango da.

Mendi irteera bakoitzean, hau da, lurralde bakoitzean, mendi tontorretan ikurrina bat eta idatzi bat uzten joango dira, «ikurrina euskaldun guztiok batzen gaituen ikurra baita».

## Alegiko Mendi Asanblada

Alegian ere Mendi Asanbladak irteerak antolatzen ditu urtean zehar. Egutegi zabalak dute baina euren helburua «gure artean, gehiegi zabaldu gabe» egitea da, eureak argitu bezala. Egun pasak egiteaz gain, udan asteburu bat igaroko dute Pirinioetan alegiarrek. Bazkideen artean egutegi zabaldu dute, Urkulun aterako argazkiarekin.

## Lehen irteerak, asteburu honetan bertan

Asteburu honetan ekingo diete lehen jarduerari mendi elkarrekin. Asteasuok, esaterako, Gipuzkoatik ez irteera erabaki dute. Hain zuzen ere, bihar izango da lehen ibilaldia eta Aranotik Besabira antolatuta dute. Bertan Zaburu (778

m.), Onddo (781 m.) eta Adarra (811 m.) gainak igarotzeko aukera emango die bertaraten direnei. Onddo eta Adarra bitartean Ete-netako Menhir-a ikusteko parada ere izango dute. Irteera egun erdiko da, eta bazkaltzeko garairako Asteasun bueltan izatea espero dute. Zailtasuna ertaineko ibilaldia dela jakinarazi dute elkarrekin. Gehien bat iraupenarengatik du zailtasuna, lau ordu inguru, izan ere, ez dauka zailtasun teknikorik», argitu dute Sagain elkarrekin.

Irteera 08:00etan izango da, Asteasuko udaletxea aurrean. Esan bezala, bazkaltzeko orduan helduko dira.

Villabonako Aizkardik ere gogor ekin nahi dio urteari eta Ezkurra-Sunbila irteera antolatuta du biharko. Goizeko 07:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. Ezkuratik abiatuko dira (400 metro), Iruñarri gailurreraino (1051 m.). Gailurretik Lizartxetaino jaitsiko dira (949 m.). Behin hona helduta, Loitzatera igoko dira (1048 m.) eta hurrengo helmuga Ekaitza (1047 m.) izango da. Baina hemen ez da amaituko, Mendaur (1131 m.) ere igoko baitute. Azken gailurretik Sunbilara jaitsiko dira. Elkarrekin adierazi dutenez, 7 orduko ibilbidea izango da eta 28 kilometro izango dira orotara.

Tolosako Oargik ere mendira antolatuta du txangoa. Baina hauek ez dira euren oinen gainean ariko, eskien gainean baizik. Izan ere, Formigalera (Aragoi, Espainia) irteera antolatuta dute gaurkorako eta biharkorako.

» EGUTEGIAK

» OARGI M.E.



- **Urtarrilak 17, 18.**  
Eski irteera Formigalera.
- **Urtarrilak 23, 24, 25.**  
Collarada, Pic des Moines.
- **Otsailak 7tik 8ra.**  
Oinarrizko ikastaroa.
- **Otsailak 15, igandea.**  
Itxinerdikoa. Gorbeia.
- **Martxoak 7, larunbata.**  
Marokora joandakoen bazkaria. Argazki proiektzioa izango da.
- **Martxoak 9tik 14ra.**  
GPS ikastaroa.
- **Martxoak 19tik 22ra.** Tuc de Mulleres, Besiberri. Maladeta.
- **Martxoak 13tik 19ra.**  
GPS eta Internet ikastaroa.
- **Apirilak 24, 25, 26.**  
Aguja de Txeria.
- **Maiatzak 1, 2, 3.** Perdiguero.
- **Maiatzak 8, 9, 10.**  
Arroilen jaitsiera. Kakoeta.
- **Maiatzak 16, larunbata.**  
Karria eta ardo bodega.
- **Maiatzak 29, 30, 31.**  
Rafting. Murillon.
- **Ekainaren 2tik 7ra.**  
Oinarrizko Eskalada ikastaroa.
- **Ekainak 13, 14.**  
Arroilen jaitsiera: G. Gloces, Furco, Viandico. Ordesa.
- **Ekainak 13, 14.**  
Garmo Negro, Algas, Argualas. Panticosa. Oiarzngo Girizia mendialdearekin.
- **Ekainak 26, 27, 28.**  
Llambrión. Picos de Europa.
- **Uztailak 11, larunbata.**  
Arroilen jaitsiera: La Leze. Egino.
- **Uztailak 12, igandea.**  
Eskalada irteera: Egino.
- **Uztailak 18, 19.**  
Tendenera. Panticosa. Oiarzungo Girizia mendialdearekin.
- **Uztailak 31, abuztuak 1, 2.**  
Els Encantats, Peguera. Maladeta.
- **Abuztuak 15etik 23ra.**  
Bidaia: Dolomita - via ferrata.
- **Abuztuak 15etik 23ra.**  
Bidaia: Alpeak - Lagginhorn Allalinhorn Strahlhorn.

- **Irailak 11, 12, 13.**  
Astazu, Perdido.
- **Irailak 18, 19, 20.**  
Arroilen jaitsiera: La Larri Foz de la canal. Pineta.
- **Urriak 2, 3, 4.**  
Infierno, Tebarray. Panticosa.
- **Urriak 10, larunbata.**  
Txindokiko arista.
- **Urriak 17, larunbata.**  
BTT: Belabieta.
- **Azaroak 7, larunbata.**  
Malloak. Aralar.
- **Azaroak 14, 15.**  
Espeleologia ikastaroa.
- **Azaroak 28, larunbata.**  
BTT: Ernio.
- **Abendua 12, 13.** Aizkorriko bira.
- **Abenduak 19, 20.** Eski irteera, Formigalera. Sabinanigo.

» SAGAIN M.T.



- **Urtarrilak 18, igandea.**  
Adarra-Arano.
- **Otsailak 15, igandea.**  
San Donato.
- **Otsailak 21 eta 22.**  
Eski irteera Luz Ardiden-era.
- **Martxoak 15, igandea.**  
Valderejo.
- **Martxoak 28 eta 29.** Iraupen luze-zeko eski ikastaroa Somport-en.
- **Apirilak 4 eta 5.** Trabesi eskia.
- **Apirilak 25 eta 26.**  
Txirinduri irteera (Bardeak).
- **Maiatzak 17, igandea.**  
Iparraldera mendi irteera.
- **Ekainak 7, igandea.**  
Txirinduri irteera.
- **Ekainak 14, igandea.**  
Durangaldea.
- **Uztailak 11 eta 12.**  
Pirinioak.
- **Irailak 13, igandea.**  
Sierra Cantabria.
- **Urriak 18, igandea.**  
Lizarrusti-Etxegarate.
- **Azaroak 9tik 15era.**  
Mendi Astea.
- **Abenduak 13, igandea.**  
Mendi irteera eta bazkaria egingo dute.

» AIZKARDI M.E.



- **Urtarrilak 18, igandea.**  
Ezkurra - Loitzate - Ekaitza - Mendaur - Sunbilla.
- **Urtarrilak 25, igandea.**  
Villabona - Zubieta.
- **Otsailak 8, igandea.**  
Sunbilla - Aizkolegi - Legate - Lekaroz.
- **Otsailak 14, 15.**  
Urmeen eski irteera (Somport).
- **Otsailak 22, igandea.**  
Villabona - Uzturre (711m) - Tolosa (Inauteriak).
- **Martxoak 29, igandea.**  
Aizkardien 41. ibilaldia.
- **Apirilak 19, igandea.**  
Behorlegi - Auski - Ihatea - Altzürüku.
- **Maiatzak 1, 2, 3.**  
Gabardito (Oza) - Peña Aguerri - Estanes - Candanchu Candanchu - Llana del Boso - Bernera - Lizara - Bisaurin - Gabardito.
- **Maiatzak 3, igandea.**  
Villabona - Zarate - Andazarrate - Asteasu - Villabona.
- **Maiatzak 16, 17.**  
Lokiz Mendilerroa - Ollogoien.
- **Ekainak 6, 7.** Panticosa - Pondiello - Picos del Infierno - Respomuso - Pico Gran Facha - Ibones del Pecico - Panticosa.
- **Ekainak 14, igandea.**  
Tatxeras (Zuriza) - Atxar de Alano - Peñaforca - Lenito - Siresa.
- **Ekainak 21, igandea.**  
Villabona - Besabi - Urnieta.
- **Uztailak 11, 12.**  
Canfranc - Lecherines - Borau - Rioseta - La Moleta - Pala de Ip - Canfran.
- **Irailak 19, 20.**  
Picos de Europa.
- **Urriak 10, 11.**  
BTT Bardeetara.
- **Urriak 11, igandea.** Aralar.
- **Urriak 18, igandea.** Arrazola - Anboto - Izpizte - Orisol - Otxandio.
- **Azaroak 8, igandea.**  
Villabonako eskalatzailen

Topaketa Peñartearen (Carrascal).  
■ **Azaroak 23tik 29ra.**  
26. Mendi Astea.  
■ **Abenduak 13, igandea.**  
Araotz - Andarto - Orkatze - Aretxabaleta.

» ALPINO UZTURRE M.E.



- **Otsailak 8, igandea.**  
Balmaseda - San Juan de Berbikete (Bizkaia).
- **Martxoak 15, igandea.**  
Zarate - Ubidea (Araba).
- **Apirilak 5, igandea.**  
Artikutza - Ilturen (Nafarroa).
- **Maiatzak 10, igandea.**  
Ligi - Santa Engrazi (Zuberoa).
- **Ekainak 14, igandea.**  
Larraona - Kanpezu (Araba).
- **Uztailak 12, igandea.**  
Arcena mendikatea (Burgos).
- **Irailak 13, igandea.**  
Abodi mendikatea (Nafarroa).
- **Urriak 18, igandea.**  
Apellaniz - Gasteiz (Araba).
- **Azaroak 15, igandea.**  
Egileor - Musitu (Araba).
- **Abenduak 20, igandea.**  
Ormaiztegi - Azkoitia (Gipuzkoa, Babarrun jatea).

» ALEGIAKO MENDI ASANBLADA

- **Urtarrilak 25, igandea.**  
Aralar. Txindokiko zirkuitoa.
- **Martxoak 1, igandea.**  
Elgea - Degurixe.
- **Martxoak 29, igandea.**  
Alegiako zirkuitoa (Bazkaria sagardotegian).
- **Apirilak 19, igandea.**  
Urbia - Aizkorri.
- **Maiatzak 31, igandea.**  
Deba - Saturrarán.
- **Uztailak 4, 5.** Pirinioak.
- **Irailak 27, igandea.** Anboto.
- **Urriak 25, igandea.**  
Aralar - San Miel - Irurtzun.
- **Azaroak 29, igandea.**  
Tolosa - Lotazo - Amasa (Bazkide eguna. Babarrun jatea).

» Laburrak

Inauterietako karroza eta konpartzentzat deialdia

**TOLOSA** ■ Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartu nahi duten guztiak urtarrilaren 20tik aurrera eman dezakete izena. Horretarako Kultur Etxera jo beharko dute, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, otsailaren 13a baino lehen. Halaber, Amartzoko Pape-laren kanpan dauden platafor-ma txikiak erabilgarriak diren ala ez jakiteko etzi, astelehena, 17:30ean kanpara joatea beharrezkoa izango dela jakinarazi dute Udaletik. Ondoren, erabilgarriak direnak Ferialekura eramango dituzte.

Tolosako Orfeoien Batzar Orokorra, hilaren 22an

**TOLOSA** ■ Heldu den hilaren 22an, ostegunarekin, Tolosako Orfeoien Batzar Orokorra egingo du Kultur Etxeko areto nagusian. Lehen deialdia 20:15ean izango da eta bigarren deialdia, berriz, 20:30ean. Azken honetan hartzen dituzten erabakiak baliozkoak izango direla jakinarazi dute Orfeoiko arduradunek, partaideen kopurua edozein izanda ere.

Zinema eskaintza zabala Leidorren astebururako

**TOLOSA** ■ Tolosako Udalaren eskutik, zinema eskaintza zabala izango da gaur, bihar eta etzi artean Leidor aretoan. Gaurkoan *Crepusculo* filma izango da ikusgai, 19:30ean eta 22:30ean, *Appaloosa* filma botako dute. Etzi ikuslearen eguna izango da Leidorren eta *Appaloosa* filma botako dute berriro, 20:30ean.

Ezohiko osoko bilkurara deitu dute asteartearako

**IBARRA** ■ Datorren urtarrilaren 20an, asteartearrekin, Ibarra Udak ezohiko osoko bilkura egingo du, 09:00etatik aurrera. Bertan gai bakarra jorratuko dute, proiektuaren onarpenarena, hain zuzen ere.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Salmenta puntuak:  
Tolosako  
OSKI arropa dendan  
Leitzako  
TORREA tabernan  
eta HITZaren Tolosako  
eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak  
jertseak • fularrak  
buffak...

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**





# Ezker abertzalea: «Ziklo berri baten atarian gaude»

**Politika** » D3M dela Euskal Herriak behar duen aldaketa diote, eta eskualdeko herritarrik sinatzera deitu dituzte.

## ERREDAKZIOA

Martxoaren leian izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen harira, Tolosako ezker abertzaleak «ziklo berri baten atarian» gaudela adierazi du, eta D3M (Demokrazia 3.000.000) dela «Euskal Herriak behar duen aldaketa». Hautes elkarte gisa osatu ahalizateko, ordea, milaka herritarren sinadurak behar direla azaldu dute.

Ezker abertzaleak herenegun eginiko prentsurrekoan adierazi bezala, «Euskal Herriak urte ugari daramatza, gehiegi aukeran, herri bezala ukatua, eskubidedun nazio gisa ukatua, eta orain 30 urte gertatu bezala, eragile politiko eta sozial guztiak kontziente dira, baita Estatu espainiarra bera ere, herri honek aldaketa politikoa behar duela». Euren ustetan, gakoak aldaketa politikoko horren edukietan eta oinarrietan dago.

Lehendakaritza norik eskuratu baino, «zein eskenatokitan gauzatu den da arazoa» euren arabera. Hala, ziklo politiko berriaren atarian gaudela dio ezker abertzaleak, eta hori atzerazina dela; «guztiok hartu behar dugu parte ziklo horren zehaztapenean; eronka oinarri eta baldintza politikoko indartsuak eskuratzean dago,



Tolosako ezker abertzaleak herenegun eman zuen prentsurrekoa. R. CALVO

Euskal Herrian eskenatoki demokratikoa erdiesteko, non euskal herritarrok izango garen, eta ez beste inor, gure etorkizunaren jabe bakarrak».

### «Aldaketari beldur»

Zentzu horretan, EAJ-PNVk beldur diola aldaketari uste du ezker abertzaleak. «Ez Ibarretxe-Lopez aldaketari, baizik eta benetakoa aldaketa politikoa, eta bloke independentista bat artikulatzearen aukeraren aurrean, kezkatuta daude». Badela, ordea, hirugarren hanka bat, independentismoarena, D3Mren bidetik, eta aldaketa hori posible dela diote.

Hala, D3Mk «errepresioaren eta apartheid politikoko eta instituzionalari erantzungo dion indarra» izan nahi duela azaldu dute; horrez gain, «benetakoa aldaketa politikoa, eskenatoki demokratikoa, nahi du, herri honetako gizon-emakumeen borondatea oinarri izango duena, Euskal Herriko hiru milioi biztanleren eskubide demokratikoen errespetuan oinarrituko

dena». Halaber, D3Mk elkarrizketa eta negoziazio prozesu berri bat eraiki nahi duela adierazi dute, «Euskal Herria nazio gisa aitortu eta euskal gizarteak erabakitakoa oinarri hartuta, bakea gure herrira ekartzeko, bake iraunkorra». Espazio independentista eta aurrerakoa bultzatu nahi dutela ere azaldu dute, «aldaketa politiko eta sozialaren motorra delako independentismoa; EAJ-PNVk eta PSEk atzera begira jarri nahi gaituzten bitartean, D3Mk Euskal Herria aurrera begira jarri nahi du».

### «Eskenatoki demokratikoa»

Ezker abertzaleak «konponbide demokratikoa» beste aukera bat eman nahi diola dio; «Euskal Herriko hiru milioi biztanleri bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea aitortu dion eskenatoki demokratikoa». Baina, herenegun azaldu bezala, «horretarako, hautes elkarte gisa osatu ahal izateko, herritarren sinadurak beharrezkoak dira».

## » SINADURA BILKETAK HERRIZ HERRI

### Aduna

■ **Udaletxean.** Datorren asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 15:00etara, eta astearte arratsaldean, 17:00etatik 21:00etara.

### Alegia

■ **Udaletxean.** Hilaren 24ra arte: asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara.

### Altzo

■ **Udaletxean.** Egunero, 09:00etatik 16:30era.

### Amezketza

■ **Udaletxean.** Hilaren 22ra arte 08:00etatik 15:00etara.

### Anoeta

■ **Udaletxean.** Datorren asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara, eta ostiralean 16:00etatik 19:00etara baita ere.

### Asteasu

■ **Udaletxean.** Datorren astelehenean eta ostegunean 09:00etatik 14:00etara, eta asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara.

### Ibarra

■ **Udaletxean.** Gaur, 11:00etatik 13:00etara, eta datorren asteartean, 08:00etatik 11:00etara.

### Ikaztegieta

■ **Udaletxean.** Datorren asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara, eta gaur, 10:00etatik 12:00etara.

Eskualdeko udaletxeetan jarri dute sinatzeko aukera, eta herritarrik deitu dituzte horretara. Euren esanetan, sinadurakin, «Alderdien Legea atzean uzten da; alderdi po-

### Leaburu-Txarama

■ **Udaletxean.** Hilaren 19an eta 21ean, 08:00etatik 14:30era, eta 23an, 12:00etatik 14:30era.

### Lizartza

■ **Udaletxean.** Datorren asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara eta larunbatean, hilak 24, 11:00etatik 14:00etara.

### Orendain

■ **Udaletxean.** Datorren asteazkenean eta ostiralean 12:00etatik 17:00etara.

### Orexa

■ **Udaletxean.** Bihar, 12:00etatik aurrera, eta astearte eta ostegunean, 09:30etik 14:00etara.

### Tolosa

■ **Udaletxean.** Asteartetik ostiralera 08:00etatik 11:00etara, eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara. ■ **Notaritzan.** Asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta asteazkenean arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara.

### Villabona

■ **Udaletxean.** Gaur, 11:00etatik 13:00etara; datorren astelehena, asteazkena eta ostirala, 08:00etatik 14:00etara, astearte eta osteguna, 19:00etatik 20:00etara.

### Zizurkil

■ **Udaletxean.** Asteleheneetik ostiralera 08:30etik 13:00etara, eta larunbata, hilak 24, 10:00etatik 13:00etara.

litiko guztiak hauteskundeetan aukera berdintasunaren parte hartuko eskubidea bermatzen da eta eskenatoki demokratiko bati ateak zabaltzen zaizkio.

# Ehunka haur ariko dira korrika bihar Alde Zaharrean, Ero-Etxe Elkartearen Krosean

**Kirola** » 11:30ean hasiko dira agztetxoak korriak; aurten ibilbidea desberdina izango da, kolektorearen lanak direla-eta.

## ERREDAKZIOA

Urtarrileko hirugarren igandero egin ohi den bezala, bihar, Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosa izango da Tolosako kaleetan. 11:30ean hasiko dira 9 urtetik 14 urte bitarteko lasterkari gazteak korrika.

XXII. krosa izango da aurten goa, eta esanguratsuen ibilbidearen aldaketa izango da. Izan ere, kolektorearen obrak direla-eta hainbat aldaketa egin dituzte. Lasterkariak Zerkausitik aterako dira, eta hor bertan amaituko dute lasterketa. Bi ibilbide izango dira, bat luzea, eta bestea motza. Ibilbide luzea Zerkausion hasi, eta Kultur Etxetik, Arostegetia kaletik eta Kale Nagusitik igarotzen da, berriro Zerkausia iritsi arte; ibilbide motza, berriaz, Zerkausion hasi, Korreo kaletik eta Kale Nagusitik



Alde Zaharrean zehar ariko dira biharoko korrika. N. LIZARTZA

igarotzen da helmugara ailegatu arte.

Hala, adinaren arabera, sei multzo desberdin egin dituzte antolatuzaileek. 95-96an jaiotako mutilak 3 itzuli luze eta motz bat egin

beharko dute; 95-96an jaiotako neskek itzuli luze bat eta 2 motz; 97-98an jaiotako mutilak luze bat eta 2 motz; 97-98an jaiotako neskek 2 itzuli motz; 99-00an jaiotako mutilak 2 itzuli motz; eta 99-00an

jaiotako neskek, azkenik, itzuli motz bat. Lehendabizikoak, hau da, 95-96koak 11:30ean hasiko dira, eta azkenak, 99-00an jaiotako neskek 12:35ean abituako dira.

## 22 urtez etenik gabe

Urtero bezala, eskualdeko ikastetxeetako ehunka gaztetxo irtingo dira korrika bihar. Hala, dagoeneko parte-hartu behar duten gehienek izena beraien ikastetxeetan eman badute ere, bihar bertan ere izango da horretarako aukera, Triangulo plazan jarriko baitute izena emateko lekua. 700 gaztetxo inguru izango dira aurten ere Tolosako Alde Zaharrean korrika ariko direnak. Proba amaitu ostean, sari banaketari ekingo diote. Lehendabizikoaren artean garaikurrak banatuko dituzte, et gainontzekoentzat ere opariak egongo dira.

22 urteren ondoren, haurrentzat, indar gehien duen kirol festa errotuenetakoa da Tolosan. Horretarako, denden, industriaren eta Tolosako Udala bezalako erakundeen laguntzen izan dute urtero.

**GAUR Urtarrilak 17 Txotx garaiari hasiera emango zaio.**

**ISASTEGI sagardotegia**  
Larunbat eguerditan irekita  
Isastegi Sagardotegia, S.L.  
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA  
Tel.: 943 65 29 64

**E Elkarrizketa**

**ITSASO LEUNDA** » Kirolaria



HITZA

# «Bizikletarako prestatuko naiz, baina ez dut triatloia baztertzen»

**Hernialde** » Ez du helburu jakinik jartzen aurtengo urterako kirolari hernialdearrak: «Ez dakit oraindik nola erantzungo dudan».

IMANOL GARCIA

Urte borobila izan da 2008a Itsaso Leundarentzat (Hernialde, 1984). Euskal Herriko triatloi zirkuituko irabazlea izan da maila absolutuan eta txirrindularitzan Espainiako txapeliduna izan da. Egunotan buru-belarri dabil Soñin Hezkuntzarako Euskal Erakundearen lizentziatura amaitzeko azterketak prestatzen. Aurten bukatu nahi ditu ikasketak.

**Nahiko ohikoa da kirolari batek kirol arloko lizentziatura egitea.** Betidanik gustatu izan zait kirola eta errendimendua eta horretan formatu nahi nuen. Hasi nintzen berezitasun bezala errendimendua aldetik, baina orain irakas-kuntza espezialitatean nago. Ez dut baztertzen etorkizunean errendimendua arloan aritzea, hau da, goi mailako kirolarietara irazteko.

**Zer moduz uztartzen dituzu ikasketak eta kirol lehiaketak?** Ematen du erraztasunak jarri behar dizkizutela, baina ez dizute ezer oparitzen. Eskatzen baduzu azterketa datak-eta aldatzen dizkizute, baina beste edozein bezala lan egin behar duzu. Kontua da ikasgelara joatearekin asko jokatzen dutela eta beraz klaseetara joan egin behar da eta entrenatzeko zailtasunak sortzen dizkit.

**Orain zer moduz moldatzen ari zara entrenamenduekin?** Orain arte egon naiz pixka bat bolumena egiten, baina orain azterketen garaian oinarritzko mantentzea egiten ari naiz. Oraingo azterketak gaindituz gero, azterketekin bukatu egiten dut eta lehentasuna eman nahi nion horri. Aurrena lizentziatura amaitu eta gero izango dut forma hartzeko denbora. Denboraldiaren hasieran formaz juxtu ibiliko naiz, kostako zait forma hartzea, baina pentsatzen dut apirila-ekainerako ondo egongo naizela.

**Triatloia eta txirrindularitza egiten dituzu. Aurten zertan ariko zara?** Txirrindularitzarako prestatuko naiz, baina ez dut baztertzen triatloia egitea. Jakitun naiz iaz baino maila baxuagoan ariko naizela triatloietan, igeriketako eta korrikako entrenamenduak ez ditudalako egiten. Erabakitzen badut momentu batean triatloi bat egin nahi dudala, orduan hasiko naiz pixka bat egiten alor horiek.

**Txiurrindularitzan Debabarrena**

**Kirolgi taldean egon zara. Bertan jarraituko duzu?**

Bai. Hau bigarren urtea izango da. **Zer helburu dituzu aurten?**

Ez dugu hitz egin oraindik, baina nire asmoa Euskal Herri eta Espainia mailan ondo ibiltzea da eta Espainiako Kopako probetan txukun aritzea. Egia esan ez ditugu helburuak jarri ez dakigulako nola erantzungo dudan. Denboraldia aurrera doan heinean gauzak ikusten joango gara eta pixka bat zehazten joango gara. Hasieran, ahal dugunean ondo ibili. Ez nago oraindik nazioarteko mailarako. Tourrera joango gara eta Giroa oraindik zehaztu gabe dugu. Tourrera bukatzea joango naiz. Hemengo probak dira helburua. Gerra eman eta ahal dena egin.

**Aurreko urtetik aldatu da urteko plangintza, beraz.** Aurreko urtean txirrindularitza

**Espainiako irabazita, jendeak babesa eman dit, baina jaso dut bestelakorik ere**

triatloirako prestatzeko egin nuen. Ez nuen jarri helbururik. Aurten, hemengo probetan ondo ibili eta ahal dela Espainiako selekzioaren partaide izatera pasatu.

**Espainiako selekzioaren partaide izateak zertarako aukera ematen ditu?**

Adibidez Mundialetera joateko. Aurreko urtean aukera eman zidaten, baina erabaki genuen goizegi zela. Gainera, nahiko nekatuta nagoen psikologikoki. Martxoaren hasieratik nenbilen entrenatzen eta lehiatzen eta oso nekatuta iritsi nintzen denboraldi amaierara. Beste hiru aste luzatu behar nuen denboraldia eta ez nintzen indarrekiko ikusten. Azkarregi joatea izango zela pentsatu genuen.

**Txiurrindularitza bigarren mailan zenuen aurreko denboraldian, baina Espainiako Txapelketa eskuratu zenuen. Hilabate batzuk pasatu ondoren, nola ikusten duzu garaipen hura?**

Oraindik ilusio handiarekin. Askotan kosta egiten zait sinistean izan nintzela irabazlea. Egia esan, min handia hartu dut ere jendearen jarraitzearengatik. Alderdi asko ikusi ditut. Nik behintzat ilusioarekin jarraitzen dut, ahal dudana hoberean egingo dut. Gauzak ez badira ateratzen ere, nik lorpen hori egin nuen eta hor dago. Niri kristoren ilusioa egiten dit oraindik, nahiz jendeak gauza batzuk edo besteak esan. Jende asko egon da babesa eman didana, baina egon da beste-lakorik ere.

**Nola dago emakumezkoen txirrindularitza soldaten aldetik?**

Gure taldea profesionala da baina kaxotxan arteen. Ez daukagu hila-beteko soldatarik. Ez gaude mutilen baldintza berdinetan. Gero be-

ken aldetik oso gutxi daude. Ni, Espainiako txapeliduna izanik, aukera daukat Foru Aldunditik jasotzeko, baina ez dakit emango didaten. Gero Euskal Herri mailan eta Espainia mailan ez dago ezer ere ez.

**Triatloiarri dagokionez, lehendabiziko aldiz irabazi zenuen Euskal Herriko zirkuitua?**

Absolutu mailan bai. 23 urtez azpikoetan bi urtez jarraian irabazi dut. 2007an, nahiz eta 23 urte azpiko mailan lehiatu, bigarren egin nuen absolutu mailan.

**Triatloia kirolaria eta erlojua da, eta txirrindularitza zu eta tropel guztia**

**Lehiaketa hori irabaztea, beraz, helburu bezala zenuen.**

Helburua bazen. Halere, beti daude duda asko. Denboraldi hasieran ez dakizu nola egongo zaren. Lesio asko izan nituen hasieran eta kilokilo ikusten nuen. Triatloian urte batetik bestera jendea asko aldatzen da. Jende berria etortzen da edo jendeak jauzi handia egiten du. Beti daude zalantzak. Nire helburua bazen irabaztea eta probak egin ahal ikusi nuen aukera zegoela.

**Aurten lasaia go hartuko duzu kirol hori.**

Hobby bezala hartuko dut eta ez dakit ziur egingo dudan. Ez dut baztertzen. Ikusten badut apirilera akituta nagoela, agian erabakitzen dut triatloia egitea eta hasten naiz korrikari eta igeri egiten.

**Zer ezberdintasun daude triatloia eta txirrindularitzaren artean?**

Triatloia esfortzu handikoa da eta gehiago ikusten dut kirolaria erlojuaren aurka dela. Eta txirrindularitza, daukadan esperientziarengatik ere oso gogorra da. Esango nuke triatloia baino gogorragoa dela, zu eta tropel guztiak parte hartzen duelako eta askoz faktore gehiagok hartzen dute parte. Adi egon behar duzu. Triatloian izan ditzakezu estrategiak, baina askoz gutxiago. Bestalde, triatloian muskulu mota ezberdinak erabiltzen dituzu. Kirol batean ez dituzunak erabiltzen beste erabiltzen dituzu. Errekuperatzeko denbora gehiago duzu, baina bizikletan ez.

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Iturgina.** Iturgin lanerako pertsona bat behar da. Deitu 656 416 808 zenbakira.

**ALOKAIRUAN**

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokairuan Tolosan. Behean pisua gehi txapitularekin. Berogailuarekin. 550 euro hilabetean. Interes dutenek deitu 669 939 943 telefono zenbakira.

**Laburrak****Gaur, bihar eta etziko filmen artean, 'Lepel'**

**VILLABONA** ● Gaur, Villabonako Gurea aretoan 17:00etan hasita *Lepel* (euskaraz) ikusi ahal izango da. 19:30ean eta 22:30ean, berriz, *Solo quiero caminar* izango da. Bihar ere 17:00etan *Lepel* (euskaraz) jarriko dute eta 19:30ean *Solo quiero caminar*. Etzi 21:30ean, ikuslearen eguna dela kontuan hartuta, *Solo quiero caminar* jarriko dute.

**Dantza-Sokarako entseguak ostiralero**

**ANOETA** ● Otsailaren 14an Dantza-Soka egingo dute Anoetan eta horretarako entseguak egunak zehaztu dituzte: hilaren 23an izango da lehena eta gero 30ean. Honela ostiralero, beraz, otsailaren 6an eta 13an ere egingo dituzte. Entsegu guztiak 18:30ean izango dira Edurkan. Bertan parte hartzeko zerrendak jarrita daude Itzuli ta-bernan, otsailaren 6ra arte.

**Bularreko minbizia goiz detektatzeari buruz**

**IBARRA** ● Katxalin, bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak, eta Ibarako Udalako Gizarte Zerbitzuen sailak, bularren minbizia goiz antzemateari buruzko hitzaldi bat antolatuko dute. Bularreko minbizia garaz detektatzeari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta «honi buruz informatua egotea funtsezkoa da». Hitzaldia Maria Jesus Mixelenak emango du. Film bat ere proiektatuko dute. Ibarra Kultur Etxean hilaren 27an 17:00etan.

**Gaur, Zeberio II-Etxabe eta Altuna-San Miguel**

**ERREMONTEA** ● Zeberio II-Etxabe erremontistek gaurko Galarretako pilotalekuan Altuna II-San Miguel izango dituzte arerio. 40 tantora jokatuko dute; aurretik beste partida bat izango da eta atzetik beste bi. Gogoratu behar da, bihar Gazteluk Ezkurrarekin batera Urriz-San Miguel bikotearen arteko finalaren rebantxa jokatuko dutela.

**Bederatzi egun telefono zerbitzurik gabe**

**BIDEGOIAN** ● Bederatzi egun telefonorik gabe egon dira Bidegoianen, Euskaltel operadorearen mugikorak dituzten bezeroak behintzat. Estaldurarik gabe egon dira azken elurtea hasi zenetik orain arte, nahiz eta duela egun batzuk elurra egiteari utzi dion. Arazo hau ez da berria bertako bizilagun batek argitu duen bezala. Matxurak bizilagunen haserrea eragin du.

**Euskadiko Kluben arteko Txapelketako partidak**

**PILOTA** ● Gaur 10:00etatik aurrera Aurrera-Saiatz pilota eskolako partidak izango dira, Euskadiko Kluben arteko Txapelketa jokatzen, hain zuzen. Lau norgehiagoka izango dira Tolosako Beotibar pilotalekuan: senior mailan Koldo Galarraga ariko da Lemoakoaren kontra; jubenilen mailan Sukiak Markinakoaren kontra jokatuko du; 22 urte azpikoaren artean Albisu Errekakoaren kontra eta 22 urte azpikoetan Apezetxea-Zubiri Zaramagako bikotearen kontra.

**Saharara bidaltzekoak****ERREDAKZIOA**

Villabonan eta Alegian ere Saharara produktuak bidaltzeko kanpainari jarri dute martxan. Hilaren 30era arte egin ahal izango da eta Alegian etzitik aurrera. Beti bezala, azukrea, arroza, dilistak, konpresak, atuna oliotan eta sardinak oliotan eman ahal izango dira.

Villabonan Eroskin, Todo-To-

don eta BNn erositakoak, bertan dauden karro batzuetan utz daitezke. Bestela, udaletxean 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Alegian, aipatutako produktuez gain, pasta ere jasoko dute. Alegiako eskolatan edota Udaletxeko gizarte zerbitzuetan utzi ahal izango da Saharara bidali nahi dena, *Piztu itzaropena* kanpainaren baitan.

**Kirolari onenaren Euskadi saria ere, Leire Olaberriarentzat**

**Ikaztegieta** ● Richard Oribe igerilari donostiarrak ere saritu dute; sari banaketa datorren astean egingo dute Gasteizen.

**ERREDAKZIOA**

Leire Olaberria pista txirrindulari jasoko du 2008ko kirolari onenaren Euskadi saria, Richard Oribe igerilari donostiarrarekin batera. Leire Olaberriak iaz Pekingo Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen eta Oribe Paralinpiarretan. Biek ere dominak irabazi zituzten: Olaberriak brontzea eskuratu zuen puntuazioan, eta Oribe gutxira lau domina lortu zituen.

Jose Ramon Garai Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendariak batez ere, Olaberriak Pekingo Olinpiar Jokoetan lortutako domina azpimarratu zuen. Ez da ahaztu behar, hala ere, urtean zehar beste hainbat lorpen ere eskuratu dituela

Ikaztegieta: hala nola, Europakoetan laugarren egin du eta Espainia mailako bi marka berri ezarri ditu.

Datorren astean egingo dute sari-emate ekitaldia, Gasteizen, Lehendakaritzan, 18:00etatik aurrera.

**Lorpen askoko urtea**

Iñaki Sagastume, Eduardo Castañeda eta Olga Jimenez kazetariak, Rafa Munilla eta Iñaki Iglesias euskal kirol federazioetako batzordeko kideak, Maria Tato abokatuak, Jose Ramon Garai Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendariak eta Elisabet Altube sariko idazkariak osatu dute epaimahaia.

Ez da hau Leire Olaberriak jaso duen sari bakarra, izan ere, beste bi sari garrantzitsu eskuratu ditu iaz lorturiko emaitzengatik: alde batek, Kutxak banatzen dituen Gipuzkoako Kirolari onenaren saria jaso zuen. Euskadi Irratia saria ere eskuratu zuen, entzuleen bozkei

**» AURTENGO LORPENAK****■ Olinpiar Jokoak 2008.**

Brontzeko domina puntuazioan.

■ **Munduko Kopa.** Zilarra puntuazioan (Melbourne-Australia).

■ **Munduko Txapelketa.** Laugarren puntuazioan (Manchester-Ingalaterra).

■ **Europako Txapelketa.** Laugarren elitekoan (Pruszkow-Polonia).

■ **Munduko Kopa.** Liderra puntuazioan 2008-09.

■ **UCL.** Lehengoa saikapen nagusian (puntuazioan). Hirugarren Scratchen.

■ **Espainiako Txapelketa.** Txapel-duna jazarpenean, puntuazioan eta scratch-en.

■ **Gipuzkoako Txapelketa.**

Txapel-duna (Gervais memoriale).

■ **Espainiako markak.** Jazarpenekoak, bai banaka eta bai taldeka.

esker. Beraz, esan daiteke 2008. urtean jasotako sariei dagokionez, kirolari onena izan dela: saririk gabe ere, onenaren artean egongo litzateke, lorpen guztiak esker.

**Beste txapelketei begira**

Egun hauetan Tenerifen entrenatzen ari da Leire Olaberria. Memento hauetan Europako probak ari da prestatzen.

**Gaur, San Anton eguna**

**Berastegi** ● Mezaren ondoren hamaiketako egingo dute ermitaren kanpoaldean; guztia 10:00etan hasiko da.

**ERREDAKZIOA**

Gaur Berastegin San Anton eguna ospatuko dute urtero bezala. Goizean, San Anton ermitan meza izango da eta ondoren, ohi bezala, bertarutzen dituzten animaliak bedeinkatuko dituzte.

10:00etan meza izango da. «Ohitura hau galtzearekin zuzen. Gaur egun herritar gazteenak dira usadioa mantenduz animaliak bedeinkatzea eramatan dituztenak».

Mezaren ondoren, kanpoalde-



Herriko haurrak dira gehienbat animaliak eramatan dituztenak. MADDI SOROA

an gosaria egingo dute 11:00ak aldera, hain zuzen. Behor, muxala eta hegaztien artean egongo da bertara joaten dena. Animalien patroiz izanik, urterik urte, Tolosaldean behintzat, Berastegin San Anton gogorazten duen herri bakarra da. Usadioak diotenaren arabera, animaliak bedeinkapena jaso ondoren, urte ona izaten omen du. Herritarrentzat egun polita izaten da, batez ere haurrentzat. Azken hauek dira gehienbat animaliak ermitara eramatan dituztenak.

**Animalien zaindaria bakarrik ez**

Historiaren arabera, ehortzeen eta animalien patroia da, noizbait lagun bat hil baizitzatzen eta berak

ehortzi zuen, bi lehoiren laguntzaz.

Beste batean ere basurde-ama bat bere kume itxuekin hurbildu omen zitzaizkion. «laguntza eskean behintzat, Berastegin San Anton gogorazten duen herri bakarra da. Usadioak diotenaren arabera, animaliak bedeinkapena jaso ondoren, urte ona izaten omen du. Herritarrentzat egun polita izaten da, batez ere haurrentzat. Azken hauek dira gehienbat animaliak ermitara eramatan dituztenak».

Horregatik batzuetan santu hau irudikatzen zutenean txerri batekin azaltzen da, batez ere haurrentzat. Zikina izango balitz bezala eta San Antonek *garbitu* (bekatutik urrundun) balu bezala.

Teologiaren arabera, kristau baten ondoan animalien bat jartzeak esan nahi du pertsona hori zoriarekin bizitzan sartzea lortu duela, hau da, zeruan.

**Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:**

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilerekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

**Eskaerak da:**

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculum baidi, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen. JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugaldede Kultur parkea - 20140 Andoain Erreferentzia: THHK209

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**E Elkarrizketa**

**PEIO IRIARTE** LABeko Munksjöko ordezkaria

**Berastegi** » Munksjöko zuzendaritzak lantokiko 163 langileetatik 156ri eragiten dien EREa eskatu zuen abenduaren 4an; Lan Deleagaritzak abenduaren 31an onartu zuen.

**REBEKA CALVO**

Berastegiko Elduako Munksjö Paper enpresako 156 langileek gogorrrak izango diren zortzi hilabete dituzte aurretik. Enpresak EREa sartu zuen abendu hasieran eta Lan Deleagaritzak orain gutxi onartu du, ondorioz zortzi hilabeteetan «lana dagoenean» bakarrik egingo dute lan, euren soldatak ere nabarmenki murriztuko direlarik. Peio Iriarte LABeko ordezkaria da bertan eta enpresak irabaziak izan dituzte ez du ulertzen zergatik ordaindu behar dituzten langileek egoera hau.

**Zortzi hilabeteetako enplegu erregulazio espedientea onartu berri du Lan Deleagaritzak, zein egoeratan geratzen zarete?**

8 hilabeteetako EREa gehienez 100 egunetako da eta hileko ere gehienez 15 egun egin daitezke lan. Lana dagoenean, hortaz, lanerako deituko digute, baina muga horiek. Gainerakoan, langabezira joango gara.

**Eta zeintzuk dira ERE honen ondorio praktikoa, hortaz?**

Langabezi prestazio soilarekin geratu gara, oinarrikoena, soldataren %70 eta tope batzuekin, seme-alaben arabera 1.000 eta 1.200 euroko soldatetan, alegia. Batzarrean independenteek negoziatzea proposatu zuten eta langileek, langabezi soilarekin ezin geratu ahal zirenez, onartu egin zuten. Honen aurrean enpresak (komitea negoziatzeko preste zegoela adierazi zuenez) zenbateko hori ez duela osatuko esan du eta horren errua guri bota ditu. Baina ez da horrela. Langilegoak jakin behar du Alemaniako zuzendaritzak langabezia prestazio soilarekin geratu behar genuela agindu zuela, soldata osagarririk kobratu gabe, alegia.

**Enpresa-batzordeak, ordea, argi utzi izan du enpresak irabaziak badituela eta ez duela zuzen langabeziko dirua behar.**

Enpresak irabaziak ditu, eta ez irabaziak bakarrik diru gehiago ere badu, ia 13.000.000 euro ateratu ditu enpresatik, eta beraz ez dugu enpresaren konpromisorik ikusten. Egoera ekonomikoa aztertuta aurrera jarraitzeko gure langabeziko diru hori ez du behar enpresak. Hori da gure arrazoi nagusia espedienteaz onartzeko. Legeak dioenaren arabera, espedientea egoeraren arabera arazo batetik ateratzeko erabili behar da, behin behineko neurria da, baina enpresak ez du betetzen; ekonomikoki ez du gure dirua behar.



R. CALVO

# «Enpresak ez du gure langabeziko dirua behar»

**Zein da orduan gakoa?**

Langabezia prestazioa gabe dagoen langile bat kalean dagoela eta gu ekonomikoki ondo dauden enpresak finantzatzeko ari gara. Diru soziala ahulenera eta babes gehiena behar duenari bideratu ordez, enpresa handiei, multinazional bati kasu honetan, ematen zaio. Euren finantzazio iturria gara.

**Alemaniak eman zuten gu langabezia prestazio soilarekin geratzeko agindua**

**Nolan onartu da orduan EREa?**

Langileak alde batetik, ekoizpeneko gehiengoak, negoziatzearen aurkakoa da, baina bestetik, administrazioan ez da horrela eta mobilizaziorik edo egiten badugu denak joaten dira lanera. Batzar bakar bat errespetatu ez duten langileak joaten dira lanera. Horien babesarekin eman du batzarren gehiengoak baiezkua.

**Lan Deleagaritzaren onarpenik**

**gabe, hala ere, ezin daitezke espedienteak aurrera ater.**

Horrexegatik galdetu izan diogu Joseba Azkarraga kontseilariari zeri begira dagoen. Diru publikoa enpresa handiak finantziatzeko erabiltzen ari dira eta honek aurreko hamarkadetan ondorioak izan ditu; prestazioak murriztu egin dira bai denboran eta baita dirutan ere (lehen bi urtekin 24 hilabeteko langabezia zenuen, orain sei behar dira eta lehen galtzen zenuena berreskuratzeko sei hilabete jarraian lana eginda nahikoa zen, orain sei urte behar dira). Hamarkadaz hamarkada, krisiz krisi, atzeraka goaz gizarte gaietan.

**Munksjören kasura bueltatuta, zein izan da enpresak EREa sartzeko erabili duen argudioa?**

Lanik ez dagoela eta biltegi beteta dagoela, hau da, produkzio-arrazoiak jarri dituzte mahai gainean. Legeak onartzen du espediente produkzio-arazoengatik sartzeko eta horregatik diote iaz makina bat 25 egunez eta beste bat 78 egunez geldirik egon zirela. Hori begiratu aurtengo aurreikuspenak ere

bide beretik joango direla diote eta biltegia ere asko igoko dela.

**Eta zergatik egin zenioten uko, ELAekin batera, negoziatzeari?**

Guk hau guztia onartuko bagenu, enpresaren egoera eta krisia onartzea izango litzateke eta ondorioz, zortzi hilabete hauek pasata zer-bait traumatikoagoa etorriko balitz ezingo genioke ezezkua eman.

**Ahulenari lagundu ordez gure dirua enpresa handien finantzazio iturri bezala erabiltzen da**

Bestalde, negoziatzen hasiko bagina hori kristoren kontraesana izango litzateke. Argitu behar da enpresa-batzordean independenteek 4 ordezkari dituztela, teknikari eta administrazioako langileak direlarik nagusi, eta ekoizpenean LAB eta ELA gara nagusi, guk hiru ordezkari ditugu eta ELAk bi.

**Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Ez dakigu zer pasako den, 2006an

gertatutakoa ere oso garrantzitsua da: gu 2006ean enpresa autonomoa ginen (erosketak, prezioak, kalitateak... berezorekin zuzenean adosten genituen), baina une honetan eskaeraren gehiengoak Alemaniatik etortzen zaizkigu, orain produkzio planta besterik ez gara. Eta honek, noski, ondorio batzuk ditu: bai kudeaketa mailan, bai gestio mailan... Oraindik ez dugu ondoriarik sumatu zentzu honetan, baina baditugu zenbait aurrekari: 2007an enpresak aholkularitza bulego baten estudio bat aurkeztu zigan, langileriari begira, lanpostuak aztertuz. Guretzako honek ez du ondoriarik izan oraindik, baina bai kudeaketa mailan — administrazioaren zatirik handiena Alemaniain dago —.

**Horixe da beste gakoetako bat ezta? Multinazional baten baitan zaudetela.**

Bai eta erabat Alemaniaren menpe gaudu; gure enpresa nagusia han dago. Guri bidaltzen dizkiguten eskaerak errentagarritasun gutxiarekin, balio erantsi gutxiarekin, dituztenak dira. Benetakoa arazoak hor eta kalitate arazoetan ditugu. Une honetan ekonomikoki enpresa ez dago gaizki, hala ere.

**Multinazionalak zituen beste lantoki batzuk ere itxi egin ditu, deslokalizaziaren beldur ere ba al zarete?**

Egia esan ikusi dugu Italian zer gertatu den, han bi lantoki itxi dituzte eta orain gu eta Iparameriketakoak bakarrik geratzen gara. Gure jabea EQT talde finantzieroa da eta talde finantzieroa honek Investor SAK kontrolatzen du eta hau izugarritzko taldea da. Sektore askotan dago sartuta eta ez dugu baretze kontrolatzen.

**Bestalde, enpresa-batzordea informazioa eskatzen ari da etengabe, jaso al duzue?**

Ez nahi beste. Atera dugun azken datuaren arabera kontu-ikuskaritza administrazioaleen soldatak ezin dira ikuskatuak izan eta horregatik jakin nahi dugu zein soldata diren horiek, zenbatekoak, horien aitzakiarekin dirua ateratzen ari diren ala ez... Informazioa jaso nahi dugu. Gure funtzioa sindikatu bezala horixe da-eta: informazioa eskatzea. Ikuskaritza ere argi utzi genion gure kontrol lana betetzen ari gara.

**U Urteurrena**

II. Urteurrena  
**MIKEL GARMENDIA MENDIBURU**

1966-2-14 / 2007-1-18

Senidetan senide,  
lagunetan lagun,  
adiorik ez duen  
betiko maitasun.



Eskerrik eman nahi dizkizuegu gure ondoan egon zareten guztiei.

**IDIAZABAL-ORENDAIN**  
2009ko  
urtarrilaren 18a

Mikelen aldeko meza BIHAR, IGANDEA, goizeko 11:5ean Orendaingo Ama Jasokundearen parrokian izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel. 943-65 56 95



11°  
5°

GOIZA ESTALIA  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 13°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leizor:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Kauta eta Lain musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

### Deialdia

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-  
teak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-  
keta antolatuta du profesional zein  
amateurrentzat. Informazioa eta  
izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com)  
webgunean.

■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan  
Belabieta kiroldegian izango den  
Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen  
Piratak ikuskizunerako sarrerek  
salgai jarri dituzte 6 eurotan Ibar-  
rako Zubiaurre Tabernan, Lurdes  
dendan, Errotaxon, Uzturpe Ika-  
solan eta Tolosako Zumbeltz disko  
dendan.

■ **Tolosa.** Haur danborradako ko-  
saken entsegua Musika Eskolan  
15:30etik 16:30era, Aiz Orratz-  
Velela elkarte antolatuta.

■ **Tolosa.** Martxoko hauteskunde-  
etarako hautesle zerrandak ikus-  
gai daude udaletxeko beheko so-  
lairuan, erreklamazioak egin ahal  
izateko.

■ **Tolosa.** Velela-Aiz Orratz elkar-  
teak 75 urte beteko ditu aurten.  
Argazki zahar eta berrien erakus-  
keta ari da prestatzen eta horretara-  
rako materiala biltzen ari dira. Baz-  
kideek, bazkide ohiek eta zerbait  
dutenek, elkartera eraman deza-  
kete. Informazioa 655 738739 te-  
lefono zembakian.

■ **Tolosa.** Etzi, astelehenean, odol  
emaileen hileroako odol ateratzek  
izango dira Kultur Etxean  
18:30etik 20:30era.

■ **Tolosaldea.** Abian da Sahararen  
aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxa-  
ropena* lelopean. Eskualdean, Tolo-  
saldea Sahararekin elkarte ari da  
aurrera eramaten janari bilketa:  
arrozta, lekaleak, pasta, hegaluzea  
oliotan, sardinak oliotan, azukrea  
eta konpresak. Urtarrilak 31ra arte.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Zer duzu negarrez, Ma-  
rie? haur antzerkia Leidor aretoan  
17:00etan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Crepusculo* filma emango  
dute Leidor aretoan 19:30ean eta  
22:30ean.

■ **Villabona.** *Lepel* filma emango  
dute euskaraz, Gurea aretoan,  
17:00etan; 19:30ean eta  
22:30ean, *Solo quiero caminar* fil-  
ma.

### Kirola

■ **Asteasu.** Aranotik Besabira an-  
tolatuta du irteera Sagain mendi tal-  
deak iganderako, Zaburu (778  
m.), Onddo (781 m.) eta Adarra  
(811 m.) gainak igoz. Irteera  
08:00etan izango da udaletxe  
aurrean eta eguerdirako itzuliko  
dira.

■ **Tolosa.** Collarada eta Pic de  
Moinesera irteera antolatuta du  
Oargi mendi elkarteak hilaren  
23tik 25era. Informazioa eta izen-  
ematea, 943 675612, 688  
698642 eta [www.oargi.org](http://www.oargi.org) helbi-  
dean.

■ **Tolosa.** Bihar, Ero Etxe elkar-  
tearen Haur Krosa 11:30etik aurrera  
Alde Zaharrean (Triangulo, Aros-  
tegieta, Gorriti, Kale Nagusia,  
Triangulo) infantil, kimu eta hau-  
rren mailetan. Zerkausitik abiatur-  
ko dira.

■ **Villabona.** Villabona - Zubietan  
goizeko mendi irteera antolatuta du  
Aizkari mendi elkarteak urtarri-  
aren 25erako, igandearekin. Infor-  
mazioa, [www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com) helbi-  
dean.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei  
buruzko margolanak ikusgai aste-  
artetik igandera bitarte Jubilatuen  
tabernan. Bizi-biziak eta  
denetan begia da jorratzen duen  
gaia.

■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena to-  
losarraren buztin egosi artelanak  
ikusgai daude egunotan Lanbroa  
tabernan.

■ **Tolosa.** Geureak ere badira adin-  
gabe horiek, bakarrik dauden adin  
txikiro atzeritarren inguruko ar-  
gazki erakusketak eta bisita gida-  
tuak Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren  
olio-lanak eta akuarelak ikus  
daitezke egunotan Itaie taber-  
nan.

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosa-  
rraren margolan erakusketak dago  
ikusgai egunotan Aranburu Jaure-  
gian.

■ **Tolosa.** Basoa erakusketak Aran-  
buru jauregian dago ikusgai,  
Ingurugiro departamentuak  
antolatuta, La Caixaren babespe-  
an.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.  
943 670915.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.  
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkariaren adierazitako esanien  
eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Arantxa Gibelalde (Ibarra).**  
Gaur 21 urte. Zorionak familia  
guztziaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko  
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## Urtarrilak 17

### Sala Muxuren denboraldi hasierako festa

Laser berria, argi ikusgarriak,  
gaur egungo musika, go-goak  
eta ezusteko asko.

Sarrera edariarekin: 8euro  
Ordutegia goizeko 1:00etik goizeko 7:00etara  
Goizeko 2:30ak arte sarrera doan.



## Urtarrilak 24

### Izugarrizko Pirata festa

